

EN PRE SAK

Ekhilur leialtze-sistema kooperatiboa da, merkataritza txikia eta tokiko ekonomia indartzeko sortua.

Ekhilur leialtze-sistema kooperatiboa da, merkataritza txikia eta tokiko ekonomia indartzeko sortua. Horretarako, “merkataritza-gune irekiak” sortzen ditugu auzo eta herri bakoitzean. Horietan, enpresek lankidetzan jardun dezakete eta estrategia bateratuak definitu, horietako bakoitzean eragina izan dezaten. Ekhillurreko bazkide izateak ateak zabaltzen dizkizu zure balio berak dituzten bezero potentzialen komunitate batera.

Zure produktuak edo zerbitzuak sarean eskaintzean, deskontu-portzentaje bat emateko aukera izango duzu. Ehuneko hori bezeroaren kontuan metatuko da, Ekhi puntu gisa, sarean erabiltzeko hurrengo erosketetarako. Gainera, zure sare lokaleko bezeroek dituzten Ekhi bonoak, zure udalak zirkulazioan jartzen dituen tokiko Ekhi puntuak eta zure sare lokaleko kideek martxan jartzea erabakitzen duzuen beste sustapen batzuk ere izango dituzu eskura.

Sarean jardun ahal izateko, zure enpresa kooperatiboko bazkide egin beharko duzu, kapital sozialean 50 €

jarriaz. Kapital soziala berreskuragarria da baja ematea erabakitzen baduzu (dirua itzultzeko baldintzak estatu-tuetan daude zehaztuta). Bazkide tutakoan, kontu bat aktibatu ahal izango duzu aplikazioaren edo ekhilur.eus webgunearen bidez. Horrekin, euroak eta Ekhi puntuak erabili ahal izango dituzu. Kontu horren mantentze-kostua 12 € + BEZa izango da 6 hilean behin.

Ekhillurreko bazkide den pertsona edo enpresaren batek ordainketa bat egiten dizun bakoitzean, ordainketa hori zure Ekhi puntuen kontuan ordainduko da, sarean erosteko erabili ahal izango duzun kontuan. Zure puntuak eurotan trukatzea erabakitzen baduzu, zure “Gizarte-eraginkortasunaren indizearen” arabera aldatuko den kostuarekin egin dezakezu. Indize hori ekonomia hurbilagoa sustatzen duten enpresei mesede egiteko pentsatuta dago, eta, gainera, ekologia, genero-berdintasuna, gizarte-justizia eta norberaren hizkuntza eta kultura errespetatzea lehenesten ditu.

Gure webguneko “dokumentuak deskargatzeko” eremuan kontsulta dezakezu zer mailatan egongo litzatekeen zure enpresa indize horretan (inoiz ez da D mailatik beherakoa izango tokiko enpresa txikien kasuan; horrek esan nahi du, gehienez ere, %2 + BEZko tasa egongo dela Ekhi puntuak eurotan trukatzeko).

Edozein unetan eskatu ahal izango duzu zure euroak itzultzeko, zure enpresa titular den banku-kontu batera transferentzia eginez, %1 + BEZa kudeaketa-kostuarekin.

Ekhillurreko bazkideek zure enpresan egiten dituzten ordainketek ez dute inolako kosturik izango ez haientzat ez zure enpresarentzat. Kostua Ekhi puntuak metatzea izango da, zehazki, kontuko puntuen hileko batez besteko saldoaren %0,5. Horrela, Ekhi puntuen zirkulazioa sustatuko da, pilatu beharrean, eta horrela komunitate osoarentzat aberastasun handiagoa sortuko da. Azken batean, Ekhilur tresna ahaltsua da enpresarentzat, eta bezeroekin konektatzen ditu, eta haien arteko loturak eraikitzen eta indartzen laguntzen die.